



# FITORE

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure gure balio-proposamenaren eskaintza garatzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanak izateko eta diru-sarrerak sortzeko, gure enpresaren funtsezko baliabideak finkatzea ezinbestekoa da. Baliabide hauek ondo kudeatzea ezinbestekoa izango dugu gure enpresak ondo funtzionatu dadin. Hauei dagokienez, hainbat baliabidetan banatzen dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

Gure enpresak beharko dituen baliabide fisikoei dagokienez, hainbat gauza erabiliko ditugu. Horiek, izenak esaten duen bezala, materialak diren baliabideak dira, fisikoak. Adibidez, salmenta puntuak, lantegiak eta abar izan daitezke. Fitore enpresaren kasuan, lanerako bulegoa, telefonoak eta ordenagailuak beharko ditugu. Izan ere, bulego bat ezinbestekoa ikusten dugu gure enpresan, lana egiteko toki finko bat edukitzeko eta enpresako partaideak bildu ahal izateko. Telefonoak behar beharrezkoak dira ere bai, gure produktua telefonoetara bideratuta dagoelako. Azkenik, datuak biltzeko, aplikazioa programatzeko eta janari eskaintzak kontrolatzeko ordenagailua beharko dugu.

Ondoren, baliabide intelektualari eta giza baliabideei erreparatuz gero, hainbat gauza daude esateko. Alde batetik, Ibai Etxeberririk dituen nutrizioarekiko ezagutzak lagungarriak izango dira. Gure aplikazioko gai nagusienetako bat baita eta hori gutxi balitz bezala, nutrizioarekiko informazioa eskaini egingo da.



Bestetik, Haizearen sormena lagungarri egingo zaigu ere bai, aplikazioa sortzerako orduan batez ere. Aplikazioa diseinatzerako orduan ideia berriak eta onak izango dituelakoan gaude eta hori oso lagungarria izango zaigu aplikazioa erakargarriagoa egiterako garaian.


Garazik planifikazioaren atalean egin dezake erakarpen bat, gure aplikazioaren beste gai garrantzitsu bat baita, gainera, helburu batzuk ezarri eta horiek lortzeko estrategiak zehazteko, enpresaren politika zehazteko eta erabakiak hartzean irizpideak finkatzeko lagungarria izan daiteke.



# FITORE

Gero, Ibai Perez antolakuntzan trebea da, horregatik gure enpresak egin beharreko jarduerak kudeatzen onena izango delakoan gaude. Antolakuntzan trebea denez, ongi zehaztuko du bakoitzak zer egin behar duen, erantzukizunak eta aginte mailak zehaztuz, horretarako harremanak eta zereginak ordenatu beharko ditu, oso lagungarri izango zaiguna.

Azkenik, Iratik, kontrolaren arloan lagundu dezake. Hau da, emaitza errealean neurketa bat eginez gai izango da denboraldi bateko estandarrak finkatzeko. Gainera desbiderapenen bat baldin badago, arrazoiak aztertuko ditu eta horiek aztertu ondoren, beharrezko neurriak hartzeko gai izango da. Hau oso aspektu positiboa izango da aurreikuspenak egiterako garaian eta enpresa ondo zuzentzerako garaian. Erabakiak hartzeko ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.



Erabiliko dugun azken baliabidea finantza-baliabideak dira. Hari dagokionez, hasieran ez dugunez inbertsiorik egingo ez dugu baliabide honen beharrik izango, baina, une batean zerbait beharko bagenu hau da, arazoren bat konpontzeko edota beste gauzaren bat egiteko, gure aurrezki batzuk kontuan izango ditugu gure aplikazioarekin jarraitu ahal izateko.

Behin hau dena aztertuta, gure enpresaren giza baliabide eta baliabide intelektualei dagokionez, talde oso orekatua garela ondorioztatu dugu, izan ere, guretako bakoitzaren aipatutako ezaugarriei esker elkar osatzen gara. Oreka hori dela eta, errazagoa egingo zaigu gure balio-proposamenaren eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiek harremanak izatea, eta baita diru-sarrerak sortzea ere.